

# CONOCE TU CIUDAD / EZAGUTU EZAZU ZEURE HIRIA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

*Donostia-San Sebastián no es únicamente el centro de la ciudad. Por muy hermoso que sea, que lo es, hay muchos otros rincones de gran belleza en los diferentes barrios que tenemos. Estamos acostumbrados cuando somos niños a contemplar la ciudad como si únicamente existiera la Concha y las calles donde vivimos.*

*Por eso, quiero ayudarte a que conozcas toda la ciudad, que la recorras, que observes otros lugares además de aquellos a los que sueles ir habitualmente. Hay zonas que te sorprenderán cuando sepas que también son parte de San Sebastián. Podrás ver magníficos edificios, polideportivos, amplias zonas verdes, etc.*

*Espero que este mapa que tienes entre tus manos te sirva para hacerte una idea mejor de tu ciudad. Que los diferentes elementos que tienes para colocar en él te posibiliten descubrir otros barrios distintos al que vives, tan interesantes como el tuyo.*

*Díles a tus padres que quieres ver directamente dónde están colocadas esas esculturas que ahora pones en el mapa, esos edificios que no sabes muy bien dónde están... Pasea con ellos para descubrir toda la ciudad, y cuídala, porque cuando seas mayor tiene que estar mejor que ahora. Aprende a quererla y, sobre todo, a disfrutarla. Es mi consejo.*

*En San Sebastián todavía tienes muchas cosas que descubrir.*

*Odón Elorza*
*Alcalde de San Sebastián*



Donostia ez da hirigunea bakarrik. Hiria bera ederretan eder bada ere, asko dira txoko eta bazter ederrak, gure hiriko auzoetan barreiatuak daudenak. Izan ere, gaztetandik joera dugu bizilekutzat dauzkagun kaleetara eta hirigunera bakarrik mugatzekoa hiri osoa.

Eta horregatik honako hau iradoki nahi nizueke: ezagut ezazu hiria bere osotasunean, ibil zaitez hiri osoan zehar, errepara iezaiezu zure ohiko ibilbideetatik at geratzen diren toki horiei ere. Ahozabalik utziko zaitu oraindik ezezagunak zaizkizun Donostiako hainbat parajek. Makina bat eraikin bikain eta zoragarri daukazu oraindik ikusteko!

Ea esku artean darabilzun mapa honek aukera ematen dizun gure hiriaren ikuspegi zabalagoa izan dezazun. Eta espero dut, mapa honetan kokatu behar dituzun elementu horiei esker, bizilekutzat duzun auzo hori bezain ederrak diren beste batzuk ezagutzeko egokiera izango duzula.

Esaiezu gurasoei zuk zeure begiez ikusi nahi zenituzkeela, esaterako, mapa honetan kokatu behar dituzun eskultura, edota non dauden ziur ez dakizun beste eraikin horiek. Ibil zaitez gurasoekin paseeran eta ikusmiran hiri osoan zehar, eta ahalik eta ongien zain ezazu, handi egiten zarenean hobeto egon dadin.

Ikas ezazu maitatzen eta, batez ere, dasta ezazu. Hori de nere aholkua. Donostiak badu oraindik donostiar beraientzat ere ezkutuan dauden gauza bitxi aunitz. Zeuk aurkitu behar dituzu.

**Odón Elorza**
**Donostiako Alkatea**

### El Peine del Viento
Conjunto escultórico realizado por el artista donostiarra Eduardo Chillida, que cuenta con la Medalla de Oro de la ciudad. La urbanización del entorno corresponde a Peña Ganchegui.

### Palacio de Miramar
Está construido en el mismo lugar donde donde estuvo la iglesia de San Sebastián. La reina María Cristina, veraneante asidua de la ciudad, empezó a residir en este palacio a partir de 1893, fecha de su inauguración. Los jardines fueron diseñados por Pierre Ducasse. En 1971 el Ayuntamiento lo compró y sirve para numerosas actividades culturales de la ciudad.

### Caballo de Nagel
Escultura del autor donostiarra Andrés Nagel situada en el acceso al Campus Universitario de Ibaeta. Su inauguración data del año 1996.

### Palacio de Aiete
Fue construido por los Duques de Bailén en 1878 y por él pasaron las más destacadas personalidades de la aristocracia y la política. El Ayuntamiento lo compró en 1939. El 20 de julio de 1977 sus jardines fueron abiertos al público y el edificio utilizado para reuniones municipales.

### Hipódromo de Zubieta
Este hipódromo se inauguró el 2 de julio de 1916, asistiendo al acto el entonces rey de España Alfonso XIII. Fueron 26 caballos los que participaron en el Primer Gran Premio de San Sebastián. Los terrenos pertenecen al municipio donostiarra.

### Puente María Cristina
Se construyó para unir el nuevo ensanche de la ciudad con la estación de ferrocarril. Fue abierto al público por primera vez el 20 de enero de 1905. Debido a su mal estado fue reemplazado pieza por pieza por otro nuevo en los años ochenta. Sus cuatro obeliscos representan la Paz y el Progreso.

### Plaza de la Constitución
Está catalogada como Bien cultural del País Vasco. Junto con toda la Parte Vieja fue reconstruida, de forma más regular, tras el incendio de 1813. Se le llamó Plaza Nueva. Donde ahora está la Biblioteca municipal estaba el antiguo Ayuntamiento, que podía alquilar para los diferentes festejos los balcones numerados. Fue remozada en 1994 dentro del Plan de Rehabilitación de la Parte Vieja.

### Ayuntamiento
Anteriormente fue Casino. Este espléndido edificio se inauguró el 1 de julio de 1887. La prohibición del juego en 1924 cerró las salas y languidecieron las actividades recreativas. El 20 de enero de 1947 el Ayuntamiento dejó el edificio de la plaza de la Constitución, trasladándose al antiguo Casino. Todas sus fachadas han sido rehabilitadas. El día de San Sebastián de este año celebramos el cincuentenario de la Casa Consistorial.

### Teatro Victoria Eugenia
Fue promovido por la Sociedad de Fomento, junto con el hotel María Cristina. Se inauguró el 20 de julio de 1912. El proyecto fue obra del arquitecto donostiarra Francisco Urcola y las pinturas del techo y bóveda de Ignacio Ugarte. Es sede de la Quincena Musical y Palacio del Festival de Cine.

### Casa de Cultura Oquendo
El antiguo caserío de Oquendo, en la falda del monte Ulía, fue rehabilitado en julio de 1987 como Casa de Cultura. Es una de las seis casas de cultura con que cuenta el Ayuntamiento, repartidas por toda la ciudad.

### Auditorio y Palacio de Congresos del Kursaal
Junto a la nueva playa de la Zurriola, el diseño corresponde a una obra de vanguardia del arquitecto Rafael Moneo, basado en la idea de "dos rocas varadas junto al Urumea". Las obras se están realizando y, desde 1999, será el gran centro cultural que necesita San Sebastián.

### Centro Cultural Jareño
Antes era una antigua fábrica en Egía, concretamente en el paseo de Jai Alai. Se ha reconvertido en un gran centro cultural con salas de teatro, danza, música, sala de grabación de maquetas, salas de exposiciones, taller de máscaras, biblioteca, etc.

### Parque Arria
Está entre la calzada de Oleta y el paseo de Herrera, en Alza. Se ha arreglado en los últimos años, adecuando la finca del caserío Arria para un parque público, con zona de estar, espacios verdes, bancos y farolas.

### Lau Haizeta
Limita con numerosos barrios donostiarras. Es de una gran belleza, con bosques autóctonos. En este parque se encuentra el antiguo fuerte de San Marcos. También pertenece a los Ayuntamientos de Astigarraga y Rentería. Está prevista la creación de una Escuela de Naturaleza, regeneración de las canteras..., así como una gran zona de esparcimiento, bidegorris, etc.

### Casa de Cultura de Loiola
El antiguo Lavadero de Loiola se convirtió desde julio de 1987 en la Casa de Cultura del barrio. Situada junto al frontón, y a la orilla del río Urumea, se inauguró al mismo tiempo que la Casa de Cultura de Oquendo.

### Estadio de Anoeta
Integrado en el barrio de Amara se construyó, junto con todo el área deportiva de su alrededor que engloba diez instalaciones, sobre la antigua ciudad deportiva de Anoeta. Tiene una capacidad para 30.000 espectadores.

### Funicular de Igueldo
Tiene un gran encanto y su primer viaje lo realizó en 1912, año en que se abrió también al público el Parque de Atracciones, que se encuentra en la cumbre del monte Igueldo, y desde donde se divisa una magnífica panorámica de la ciudad.

### Parque Tecnológico
El Parque Tecnológico de Miramón es de gran importancia para el desarrollo económico de la ciudad. La implantación de empresas está condicionada al respeto del entorno natural. Está previsto para empresas de alta tecnología y centros de investigación avanzada.

### Campo de fútbol de Herrera (Larratxo)
El actual es la remodelación del antiguo campo que tantas jornadas de alegría dió a los equipos que allí juegan. En 1994 se cambió el pavimento de gravilla por uno de hierba artificial, mejorando también los vestuarios y la urbanización exterior.

### Centro Joven Contadores
Es un reciente Centro de Información Juvenil que se encuentra en Bidebieta. Cuenta con salón de actos, cuatro salas polivalentes, ludoteca y salas de danza, teatro y música. Hay también una "incubadora" para empresas impulsadas por jóvenes.

### Haizearen Orrazia
Burdinazko eskultura-multzoa, Eduardo Txillida eskultore donostiarrak egindakoa: hiriko urrezko domina eman zioten lan horregatik. Inguruneko hiritartze-lana, berriz, Peña Gantcheguiri zor zaio.

### Miramar jauregia
San Sebastian eliza zegoen lekuan bertan eraikitakoa da. Maria Cristina, Donostiara etorri ohi baitzen udaoro, 1893. urteaz geroztik hasi zen egoitza gisa erabiltzen: urte horretantxe inauguratu zen. Pierre Ducasse-k diseinatu zituen jauregiko lorategiak. Udalak 1971n erosi zuen eta hiriko hainbat kultur iharduaretarako balio du.

### Nagelen zaldia
Andrés Nagel pintore eta eskultore donostiarraren eskultura-lana, unibertsitate-campuserako sarbidean kokaturikoa. Inaugurazio-egunaren data 1996ekoa da.

### Aiete jauregia
Bailengo dukeek eraiki zuten 1878an eta bertatik igaro izan dira aristokrazia eta politika mailako hainbat pertsona entzutetsu eta ospetsu. Udalak 1939an erosi zuen. Bertako loretegiak 1977ko uztailaren 20an zabaldu zitzaizkion publikoari eta eraikina udal bileretarako erabiltzen da.

### Zubietako zalditokia
1916ko uztailaren 2an inauguratu zen. Garai hartan Espainiako errege zen Alfontso XIII.a etorri zen inaugurazio-ekitaldira. Donostiako Lehen Sari Handian 26 zaldik parte hartu zuten.

### Maria Kristina zubia
Hiriaren zabaldura berria tren-geltokiarekin lotzeko eraiki zuten. 1905eko urtarrilaren 20an zabaldu zen estreinakoz publikoarentzat. Egoera tamalgarrian aurkitzen zenez, ordea, piezaz pieza berritu behar izan zen 80.eko urteetan. Ageri dituen lau obeliskoak Bakearen eta Aurrerapenaren adierazgarri dira.

### Konstituzio plaza
Euskal Herriko kultur ondaretzat katalogatuta dago. Alde Zahar osoa bezala, era ordenatuagoan birreraikia izan zen 1813ko sutearen ondoren. Plaza Berria deitu zitzaion. Egun Udal Liburutegian dagoen lekuan aurkitzen zen orduko Udaletxea zeinak balkoi zenbakidunak aloka baitzitzakeen hainbat festa-egunetarako. Oraintsu berritua izan da alde zaharreko Birdoiketa Planaren barruan.

### Udaletxea
Hasiera batean kasino izan zen. Eraikina 1887ko uztailaren 1ean inauguratu zen. 1924an jokoa debekatu egin zenez, ordea, aretoak itxi egin ziren eta joko-iharduerek ere nabarmen egin zuten behera. 1947ko urtarrilaren 20an. Konstituzio plazako eraikina utzi eta behinola Kasinoa izandakora aldatu zen Udaletxea, eta ordudanik bertan dirau. Fatxada guztiak Birdoituak izan dira. Aurtengo San Sebastián egunean udaletxearen berrogeitamargarren urteurrena ospatuko da.

### Viktoria Eujenia antzokia
Sustapen Sozietateak sustaturikoa da, Maria Kristina hotelarekin batera, 1912ko uztailaren 20an inauguratu zen. Zegokion proiektua Francisco Urcola arkitekto donostiarrak burutu zuen. Sabai eta gangetako pinturak, berriz, Ignacio Ugartek egin zituen. Egoitza honetan ospatu ohi dira Musika Hamabostaldia eta Zinemaldia.

### Okendo Kultur Etxea
Antzina Okendo baserria izandakoa. Ulia mendiaren magalean kokatuta dago eta 1987ko uztailean birgaitu zuten kultur etxe gisa erabiltzeko. Honez gain, Donostiako Udalak beste bost kultur etxe ditu hiri osoan zehar barreiatuak.

### Auditoriuma eta Kursaal Kongresu jauregia
Zurriolako hondartza berriaren alboan kokatuko da. Diseinua Rafael Moneori zor zaio: "Urumea ondoan lehorreratutako bi harkaitz"en ideia izan du arkitektoak oinarrizko abiaburutzat. Egun eraikuntzafasean aurkitzen da, eta lanak burututakoan. Donostiako kulturgune handi bilakatuko da, zeinaren premia baitu hiriak.

### Jareño kulturgunea
Egia auzoan kokatuta dago. Jai Alai pasealekuan hain zuzen ere, eta fabrika bat izan zen behinola. Hura berregituratu eta kulturgune handi bilakatu zuten, besteak beste, honako hauek dituena bere baitan: antzerkia, dantza eta musika egiteko aretoak, maketak grabatzeko aretoa, erakusketa-aretoak, mozorro-tailerrak, liburutegia...

### Arria parkea
Oleta galtzadaren eta Herrera pasealekuaren artean kokatuta dago. Azken urte hauetan konponketa-lanak egin dira bertan. Arria baserriari zegokion onibarra parke publiko gisa egokitu ahal izateko, atsedenleku, berdegune, eserleku eta farol eta guzti.

### Lau Haizeta
Donostiako auzo askok mugatzen dute. Edertasun paregabekoa da, bertako basoz osaturikoa. Parke honetan dago garai bateko San Markos gotorlekua. Orobai, Astigarraga eta Errenteriako Udalari dagokie. Aurreikusitakoaren arabera. Natura Eskola bat eratu nahi da bertan, harrobiak birsortu... Finean, aisialdirako leku zabal bilakatu.

### Loiola Kultur Etxea
Behinola Loiolako ikuztegia edo latsagia izandakoa auzoko kultur etxe bilakatu zen 1987ko uztailaz geroztik. Pilotalekuaren alboan dago. Urumea ibaiaren bazterrean Okendeko kultur etxearekin batera inauguratu zen.

### Anoeta estadioa
Amara auzoan dago. Inguruan duen kirolgune osoarekin (hamar instalazioz osaturikoa izaki) batera eraiki zen. Anoetako kirol-hiri ohiaren gainean. 30.000 ikusle har ditzake bere barruan.

### Igeldoko funikularra
Xarma berezia du. 1912an egin zuen bere lehen igoaldia: urte horretantxe inauguratuko zen, bestalde, Igeldo mendiaren gailurrean dagoen Jolas Parkea. Goi-goitik hiriaren ikuspegi zoragarriaz goza daiteke.

### Teknologia-parkea
Miramongo Teknologia Parkeak berebiziko garrantzia du hiriaren ekonomia-garapenean. Enpresen ezarpena ingurune naturalarekiko begirunearen baldintzapean egingo da. Goi-mailako teknologiadun enpresentzat, ikerketa aurreratuko zentroentzat...

### Herrerako futbol-zelaia (Larratxo)
Lehengo futbol-zelaia, bertan jokatu ohi zuten taldeei hainbeste bozkario-egun eskainitakoa, birmoldatzearen ondorio da egungoa. Garai bateko zola hartxintxarrezkoaren ordez, belar artifiziala jarri zuten: bestalde, bai aldagelak, bai kanpoko urbanizazioa, hobetu egin zituzten.

### Kontadoreetako gaztelekua
Oraindik orain sortu da Bidebieta Gazteen Informaziorako Zentro hau. Honako hauek biltzen ditu bere baitan: ekitaldi-aretoa, lau areto balioanitzak, ludoteka, eta, dantza, antzerkia edo musika egiteko aretoak. Halaber bada "inkubagailu" bat, gazteek bultzaturiko enpresentzat.



El Peine del Viento



Puente María Cristina



Palacio de Miramar



Palacio de Aiete



Plaza de la Constitución



Hipódromo de Zubieta



Caballo de Nagel



Lau Haizeta



Ayuntamiento



Teatro Victoria Eugenia



Parque Tecnológico



Casa de Cultura Oquendo



Funicular de Igueldo



Campo de fútbol de Herrera (Larratxo)



Auditorio y Palacio de Congresos del Kursaal



Centro Cultural Jareño



Casa de Cultura de Loiola



Centro Joven Contadores



Parque Arria



Estadio de Anoeta

# DONOSTIAREN HISTORIA LABURRA

Denboraren poderioz gure hiria aldatuz joan da, egun dena izatera iritsi arte. Haizearen erasoetatik babestu nahirik Urgull mendiaren gerizpean sortu zen arrantzale-herriska hura gaur egungo hiri hau bilaka zedin, beharrezkoa izan zen milaka donostiarren eskuhartzea; eta haien neke, ahalegin eta maitasunari esker bilakatu zen herriska behinolakoa hirihobe, erosoago eta ederrago.

XII. mendean eman zion Nafarroako errege Antso Jakitunak Donostiako hiribilduari birpopulaketa-forua eta San Sebastian izena ezarri. Izan ere, gure itsasertzotan ageri ohi ziren baleak harrapatzen aritzen ziren ordu hartako donostiarrak.

1808an Napoleonen soldaduek hartu zuten hiria eta bertan geratuko ziren 1813ra arte, Wellington-go dikearen agindupean zeuden tropa anglo-portugesak, berriz, frantsesen aurka borrokatu eta Donostia berenganatu, arpilatu eta erre egingo zuten. Hondamendia erabatekoa izan zen. Etxe bakan batzuk baino ez ziren salbatu suntsiketa hartan, hain zuzen ere. Urgull menditik gertuen zeudenak, alegia, Abuztuaren 31 kalean kokaturikoak; kale herri hala deritzo, orduko gertakari zorigaiztokoen gogoangarri.

Alabaina, bizirik irten ahal izan zuten donostiarrek, Zubietako baserri batera bildu baitziren eta adore nahiz borondate handia ageri baitzuten, hiria berreraikitzea erabaki zuten. Alde Zaharrak gaur egun duen eitea erabaki haren ondorio baino ez da. Aipagarria da, halaber, Isabel II.a erregina 1845ean iritsi zela estreinakoz Donostiara, pairatzen zuen larruazaleko gaixotasuna zela-eta gomendatu zizkioten itsasbainuak hartzeko asmoz etorria baitzen.

Ezari-ezarian, bada, hiria handituz joan zen eta inguratzen zuten harresiek beren eginkizun hasierakoa bertan behera utziko zuten. Hala, eta hiriak hedatu beharra zeukanez, Donostiako harresiak eraisteari ekin zitzaion 1863an.

Hiriaren hedapenari buruzko zenbait proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik, Antonio Cortazar arkitektoak egindakoa hobetsi zen. Etxe berriak eraikitzeko plangintzak bere baitan hartzen zuen Bulebarraren eta Mendeurren plazaren arteko lursaila. Igeldon zeuden harrobietatik erauzitako hareharria erabili zen etxe berriak eraikitzeko. Ordudanik ekin zitzaion Donostia hiritartzeari, alegia, izango zuen hazkunderako prestatzen. Iharduera ugariko urteak izan ziren eta jendetza handia iritsi zen hirira. Beraz, ezinbestekoa zen hiritartze-lanak eta zerbitzu publikoak behar bezala eta lehenbailehen garatzea, haien eskariei aurre egin ahal izateko. Hala nola, eta Donostia hiritartzeko gogo bizi haren adeirazgarri, gure hiria aitzindari izan zen, besteak beste, tranbia jartzen, kaleetan argiteria ezartzen, edota telefono-instalazioak ipintzen. Mundu zabaleko bidaiariak erakarri zituen Donostiak mende honetako lehen urteetan. Europan gerrak zirauen bitartean. Hala, biztanleen kopuruak ere gora egin zuen. 1880an 20.823 biztanle izatetik 1925ean 65.930 izateraino.



Gerra zibilaren ostean egundoko industrializazioa gertatu zen eta etxe gehiago eraiki behar izan zen. Lurralde lauak urriak izaki hirian, Donostia inguruko mendi-mazeletan eraikitzen hasi zen. Nahikoa kontrolik gabea izan zen urte haietako garapena, etxebizitzen eskariari erantzun nahirik gauzaturikoa; eta hargatik, hirigintza-iharduketa zorigaitzekoak burutu ziren.

Alabaina, eta Donostia etengabe bilakatuz zihoanez. Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra onartu zen 1996an: plan horren helburua da, taxutzea Donostiak XXI. mendean izango duen diseinua.

Gauzatzen ari diren eta datozen urteetan egingo diren aldaketen adibide argi dira. esaterako. Zurriolako hondartza, eraikitzen ari diren Auditoriuma, Alde zaharraren birdoiketa, etxabizitzen sustapena Amarako eranskina, Intxaurrondo, Benta Berri eta Aieteko zonaldeetan; teknologi eta enpresa parkeak, kirol gune zabalak, bide berriak, merkataritzaren birantolaketa, oinezkoentzako guneak, etab.

Hortza, bada, garrantzitsua da donostiar ororen ekimena eta eskuhartzea: baita zuona ere. Hiria gustion artean egin behar baitugu eta guztiona baita erantzukizuna hiria hobetzeko prozesu honetan.

# BREVE HISTORIA DE SAN SEBASTIAN

Nuestra ciudad ha ido cambiando con el paso del tiempo hasta llegar a ser la que conocemos. Desde que era una villa fortificada protegida del viento por el monte Urgull hasta hoy, ha sido necesaria la participación de miles de donostiarras que con su trabajo y con su cariño se han esforzado para hacerla más cómoda y más hermosa, para modernizarla y poder vivir mejor en todos los barrios.

Fue en la segunda mitad del siglo XII cuando el Rey Sancho el Sabio de Navarra otorgó a la Villa su Fuero de Repoblación, denominándola San Sebastián. En aquellos años, los donostiarras se dedicaban también a cazar las ballenas que aparecían cerca de nuestras costas.

En 1808 la ciudad fue ocupada por los soldados de Napoleón, que permanecieron aquí hasta 1813. Las tropas anglo-portuguesas mandadas por el Duque de Wellington combatieron contra los franceses apoderándose de la ciudad, que saquearon y quemaron. La destrucción fue casi total. Fueron pocas las casas que se salvaron, concretamente algunas de las que se encuentran más cerca del monte Urgull, en la calle 31 de agosto, que se llama así para recordar el día en que ocurrieron tan tristes sucesos.

Pero los donostiarras supervivientes, con gran tesón y voluntad, reunidos en un caserío de Zubieta, decidieron reconstruir la ciudad. Así, la configuración actual de la Parte Vieja es producto de esa decisión.

No podemos olvidar que en 1845 llegó a San Sebastián por primera vez la reina Isabel II, que tenía una enfermedad de la piel y le recomendaron los baños de mar.

De los diferentes proyectos que se presentaron para la ampliación de la ciudad fue elegido el realizado por el arquitecto Antonio Cortázar. La planificación comprendía el terreno existente entre el Boulevard y la plaza del Centenario para construir nuevas casas. Las nuevas casas se construyeron con piedra arenisca extraída de las canteras que había en Igueldo. A partir de entonces se empezó a urbanizar la ciudad, es decir, a prepararla para su crecimiento.

Fueron años de gran actividad y de gran afluencia de personas. Por lo tanto, para dar respuesta a sus demandas era necesario un gran desarrollo urbano y de los servcios públicos. Hay que recordar que, fruto de ese ímpetu, San Sebastián fue pionera en el establecimiento del tranvía, del alumbrado eléctrico en las calles, en la instalación del teléfono, del gas, etc.

Era una ciudad que atraía a visitantes de todo el mundo, principalmente en los primeros años de este siglo, coincidiendo con la Guerra Europea. Así, pasó de tener 20.823 habitantes en 1880 a 65.930 en el año 1925.

A partir de la guerra civil hubo una gran industrialización por lo que se construyeron más casas. Como no es mucha la extensión de terreno llano en la ciudad se empezó a edificar en las laderas de los montes que rodean a San Sebastián. Fueron años de desarrollo un tanto incontrolado para dar respuesta a las demandas de vivienda, lo que produjo algunas actuaciones urbanísticas desafortunadas.

Pero San Sebastián continúa evolucionando, y por eso se aprobó el Plan General de Ordenación Urbana en el año 1996, cuya función es diseñar la ciudad para el comienzo del siglo XXI.

Un ejemplo de los cambios que se están realizando y los que tendrán lugar en los próximos años son la nueva playa de la Zurriola, el Auditorium que se está construyendo, la rehabilitación de la Parte Vieja, el impulso a la vivienda en áreas como el Apéndice de Amara, Intxaurrondo, Venta Berri y Aiete; la creación de parques tecnológicos y empresariales, polideportivos, nuevos viales, centros comerciales, zonas peatonales y zonas verdes, etc.

Por ello, es importante la iniciativa y la participación de todos los donostiarras, incluídos vosotros. La ciudad se hace entre todos, y todos tenemos responsabilidad en hacer que triunfe la convivencia en paz y el progreso para todos.



# CUIDA TU CIUDAD

Mantener una ciudad limpia es tarea de todos. Es necesaria la colaboración de todos los que vivimos aquí, y tú eres importante. Sigue, por favor, estos consejos:

- No tires papeles ni chicles al suelo, déjalos en las papeleras

- Las latas de refresco, también a las papeleras

- Recuérdales a tus "aitas" que las bolsas de basura hay que sacarlas a partir de las 19,30 hasta las 23 horas. Siempre en bolsas cerradas y en el interior de los contenedores.

- Diles también, por si acaso, que las colillas que suele haber en el cenicero del coche hay que tirarlas a la papelera, y no vaciar el cenicero en la calle.

- Si tienes perro en casa, cuando lo saques a pasear no le dejes hacer sus necesidades en medio de la calle. Es muy desagradable pisar sus desperdicios. Recógelos y a la papelera.

- Respeta el mobiliario urbano (bancos, fuentes, jardines...), porque a todos nos gusta pasear.

- Conviértete en un agente ecológico en tu casa. Es muy sencillo: tienes que separar diversos elementos que se utilizan con frecuencia porque son reciclables. Por ejemplo, el papel de periódicos, de revistas, de envolver... puedes guardarlo en un montón y depositarlo una vez a la semana en los contenedores de papel. Lo mismo con las botellas de vidrio: guárdalas y cada semana al contenedor.

Estos materiales pueden reciclarse. Es decir, que una vez tratados pueden volver a ser utilizados. De esta manera cuidamos nuestra ciudad y la naturaleza. Y en esto, todos tenemos algo que ver.

# ZAIN EZAZU HIRIA

Guztioi dagokigu hiria txukun eta garbi edukitzea. Horretarako, hemen bizi garenok elkarren artean ahalegindu behar dugu, eta, beraz, ezinbestekoa da zure eskuhartzea ere. Kontuan izan itzazu, arren, honako kontseilu hauek:

✍ Ez bota lurrera paperik edo txiklerik; bota itzazu zakarrontzietara.

✍ Bota itzazu freskagarri-potoak zakarrontzietara.

✍ Gogora iezaiezu gurasoei zaborpoltsak ateratzeko ordutegia 19:30etik 23.00ak a arterakoa dela. Zabor-poltsak itxita eta edukiontzietan utzi behar dira.

✍ Esaiezu, badaezpada ere, kotxeko hautsontzian pilaturiko zigarrokinak zakarrontzietan hustu behar direla, eta ez kalera bota.

✍ Etxean txakurrik baldin baduzu, eta paseatzera badaramazu, ez iozaiozu utzi bere eginbeharrak egiten kale erdian. Ez da batere gozoa txakur-gorotzak zapaltzea. Bil itzazu, bada, eta bota zakarrontzira.

✍ Izan begirune hiri-altzariekiko. Zain itzazu, eserlekuak, iturriak lorategiak eta gainerakoak, denok atsegin baitugu paseeran ibiltzea.

✍ Izan zaitez ekologia-eragile zeure etxean bertan. Ez da batere zaila: bereiz itzazu sukaldean maiz darabiltzazun elementu anotz horiek, birziklagarriak baitira. Meta itzazu pila batean, esaterako, egunkari-paperak, aldizkari-paperak, biltzeko darabiltzazunak, e.a.. eta utz itzazu astean behin paperentzako edukiontzietan. Egin ezazu horixe berori beirazko botilekin ere: gorde eta bota astero beirentzako edukiontzira.

Material horiek guztiak birziklatu egin daitezke. Alegia, behin tratatu ondoren, berriz erabiliak izan daitezke. Hala, gure hiria eta natura zainduko ditugu aldi berean. Eta horretan, denok dugu zerikusirik.







Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián